

# Europako hirien gutuna jasangarritasunerantz

(Aalborgeko Gutuna)

Aalborgen (Danimarka, 1994ko maiatzaren 27a) hiri jasangarriei buruz egindako  
Europako konferentziako partaideek onetsia

- I. zatia: Adostasun adierazpena: Europako hiriak jasangarritasunerantz.
- II. zatia: Europako hiri jasangarrien kanpaina.
- III. zatia: 21. programako toki ekimenetan parte hartzea: toki ekintzako planak jasangarritasunaren alde.

<b>I. ZATIA</b>	<b>Adostasun adierazpena. Europako herriak jasangarritasunerantz</b>
-----------------	--

## 1.1 Europako hirien zeregina.

Guk, Gutun hau sinatu dugun Europako hiriok, aditzera eman nahi dugu historian zehar inperioak, estatu-nazioak eta erregimenak ezagutu ditugula, eta bizirik iraun dugula gizarte bizitzako erdigunetzat, gure ekonomien babesletzat eta kulturaren, ondarearen nahiz tradizioaren zaindaritzat. Familiekin eta auzoekin batera, hiriak gure gizartein zein Estatuin oinarriak izan dira, eta industriaren, eskulangitzaren, merkataritzaren, hezkuntzaren zein gobernuaren erdiguneak ere bai.

Oraingo bizitza-eredu hiritarra, lana nahiz eginkizuna banatzeko joerak, lurzorua okupazioa, garraioa, industri produkzioa, nekazaritza, kontsumoa eta aisialdiko jarduerak kontuan hartuta, hau da, gure bizi-maila aintzat hartuz gero, gizateriaren ingurumen arazoetariko askoren erantzuleak gara. Hori oso adierazgarria da, Europako biztanle guztien ehuneko laurogei hirietan bizi dela kontuan hartuz gero.

Industri herrietako baliabideen oraingo kontsumo-mailak ez daude munduko herrialde guztien esku, are gutxiago etorkizuneko belaunaldien esku, ingurumen kapitala suntsitu barik.

Seguru dakigu planeta honetako gizakien bizitza jasangarria izateko toki-elkarte jasangarriak behar direla. Toki-gobernua ingurumen arazoak dituen lekutik eta hiritarrendik oso hurbil dago; gainera, lurralde eremu guztietako gobernuekin batera, gizateriaren eta naturaren ongizatearen erantzukizuna dauka. Horrenbestez, hiriek eginkizun erabakigarria dute, honako hau aldatzeko prozesuan: bizimoduak, produkzio erak, kontsumo motak eta espazioa banatzeko jarraibideak.

## 1.2 Jasangarritasunaren nozioa eta printzipioak.

Guk, hiriok, badakigu garapen jasangarriaren kontzeptua lagungarria dela gure bizi maila naturaren karga-gaitasunean oinarritzeko. Gizarte-justizia, ekonomia jasangarriak eta ingurumenaren jasangarritasuna lortu nahi ditugu. Gizarte-justizia lortzeko, ezinbestekoak dira jasangarritasun ekonomikoa eta zuzentasuna, eta horiek, aldi berean, ingurumenaren jasangarritasuna behar dute.

Ingurumenaren jasangarritasunerako, gainera, kapital naturala mantendu eta zaindu behar da. Baliabide material, hidriko eta energetiko berriztagarrien oraingo kontsumo-erritmoak ez du gainditu beharko sistema naturalek horiek berritzeko duen gaitasuna; era berean, berriztagarriak ez diren baliabideen kontsumo erritmoak ez du gainditu beharko horiek baliabide berriztagarri iraunkorrekin ordeztzeko erritmoa. Ingurumenaren jasangarritasunerako, halaber, beharrezkoa da kutsagarrien emisio-erritmoak ez gainditzea aireak, urak eta lurzorua horiek zurgatzeko nahiz prozesatzeko duen gaitasuna.

Ingurumenaren jasangarritasunerako, gainera, mantendu egin behar dira aniztasun biologikoa, gizakiaren osasuna eta airearen, uraren nahiz lurzoruaren kalitatea, beharrezko mailetan mantendu ere, gizakiaren, floraren zein faunaren bizitza nahiz ongizatea betiko mantentzeko.

### **1.3 Tokiko estrategiak jasangarritasunerantz.**

Hiriok seguru dakigu hiria erakunderik garrantzitsuena dela, mundu modernoan eragina duten era guztietako desoreka ugari aurre egiteko (arkitekturan, gizartean, ekonomian, politikan, ingurumenean eta baliabide naturaletan dauden desorekak); halaber, arazoak behar bezala konpontzeko unitaterik txikiena da (konponketa integratua, holistikoa eta jasangarria). Hiri guztiak desberdinak direla aintzat hartuta, bakoitzak jasangarritasunerako dituen biderik egokienak aurkitu behar ditugu. Jasangarritasunaren printzipioak gure politika guztietan sartuko ditugu, eta toki eremuko estrategia egokiak bakoitzaren indarretan eustarriko ditugu.

### **1.4 Jasangarritasuna, oreka bilatzeko tokian tokiko sormen prozesutzat.**

Guk, hiriok, badakigu jasangarritasuna ez dela ametsa edo egoera mugiezina; izan ere, oreka bilatzeko tokian tokiko sormen prozesua da eta prozesu hori maila honetako erabaki hartzeen eremu guztietara hedatzen da. Hiriko ekosistema orekarantz bultzatzen duten jardueri buruzko etengabeko informazioa ahalbidetzen du, baita oreka horretatik urruntzen duten jardueri buruzko informazioa ere. Hiriko kudeaketa halako prozesu baten bitartez bildutako informazioan oinarritzen denean, hiria osotasun organikotzat agertzen da, eta bertan jarduera garrantzitsu guztien ondorioak ikusten dira. Halako prozesu baten bidez, hiriak eta bertako biztanleek aukera guztien artean hautatzeko bidea dute, jakinaren gain egonik hautatu ere. Jasangarritasunean oinarrituriko kudeaketa prozesu batek, eragina jasaten duten pertsonen interesetan ondorioz ez duten erabakiak hartzeko ez ezik, aukera ematen du etorkizuneko belaunaldien interesetan eraginik ez duten erabakiak hartzeko ere.

### **1.5 Arazoak negoziazio irekien bitartez konpontzea.**

Guk, hiriok, badakigu ezinezkoa dela gure arazoak ingurumenaren edo etorkizuneko belaunaldien esku uztea. Horrenbestez, gure arazoak eta desorekak geuk konpondu behar ditugu, behar izanez gero eskualde zein nazio mailako erakundeekin laguntzarekin. Horixe da adostasun printzipioa, eta hori aplikatuta, hiri bakoitzak askatasun handiagoa izango du, bere jardueren izaera zehazteko.

### **1.6 Hirien ekonomia jasangarritasunerantz.**

Guk, hiriok, ondo dakigu gure kapital naturala gure garapen ekonomikoaren faktore murriztailea izan dela (atmosfera, lurzorua, ura eta basoak). Kapital horretan inbertitu beharra dugu, lehenetsuneko ordena honi jarraituz:

- Oraingo kapital naturalaren kontserbazioan inbertitzea (lurpeko ur erreserbak, lurzorua, espezie arraroen habitatak).
- Kapital naturalaren hazkuntza sustatzea eta oraingo ustiapen maila murriztea (berriztagarriak ez diren energiei dagokienez).
- Kapital naturaleko erreserben gaineko presioa arintzeko inbertsioa egitea, landutako kapital naturala eratuz, adibidez, baso naturaletan dagoen presioa duten hiriko aisialdi-parkeak.
- Produktuen azken erabileraren eraginkortasuna hobetzea, eraginkortasun energetiko handiko eraikinak eginez edo ingurumenarekiko errespetua duten hiriko garraioak sortuz.

### **1.7 Gizarte justizia hiriko jasangarritasunerako.**

Guk, hiriok, badakigu ingurumen arazoek pobreenengan dutela eraginik handiena (zaratak, trafikoaren ondoriozko kutsadura, instalaziorik eza, etxebizitza osasungaitzak, eremu berderik eza), eta halako arazoak konpontzeko gaitasunik urriena, gainera, pobreek dute. Aberastasunaren banaketa desorekatuak jokabide jasanezinak sortu eta horiek aldatzeko oztopoak jartzen ditu. Biztanleriaren oinarrizko gizarte-beharrizanak integratu egin nahi ditugu (esate baterako, osasun, lan eta etxebizitza programak), ingurumenaren babesean. Bizitza-estilo jasangarrien lehenengo esperientzietatik ikasi nahi dugu, hiritarren bizi kalitatea hobetu ahal izateko, kontsumoa maximizatzerako mugatu beharrean.

Elkartearen jasangarritasunari lagundu eta okupaziorik eza murriztuko duten lanpostuak sortzeko ahalegina egingo dugu. Okupazioa sortzen edo erakartzen saiatzean, aukera ekonomikoen ondorioak jasangarritasunaren arabera ebaluatuko ditugu, lanpostu eta produktu iraunkorren sorrera bultzatzeko eta horiek jasangarritasun printzipioei egokitzeko.

### **1.8 Lurzoruaren erabilerarako jarraibide jasangarriak.**

Guk, hiriok, badakigu garrantzitsua dela gure toki-agintariek politika eraginkorrak aplikatzea lurzoruaren erabilere eta lurraldearen antolaketari buruz, horiek plano guztietako ingurumen ebaluazio estrategikoa eragiteko. Hiri-pilaketarik handienek zerbitzu publiko eraginkorragoak (garraioa eta energi hornidura) emateko eta,aldi berean, garapenaren giza-dimentsioa mantentzeko eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatu behar ditugu. Hirien erdigunea bereizteko programak hastean eta hiri barruko alde berriak planifikatzean, mugikortasuna murrizteko funtzio anitzak sortzen saiatuko gara. Eskualde mailako elkarmenpeketasun zuzenaren kontzeptuak, beste alde batetik, aukera eman behar du baserriaren eta hiriaren arteko jarioak orekatzeko eta hiriei inguru aldeetako baliabideak ustiatzeko aukerarik ez emateko.

### **1.9 Hiriko mugikortasun jasangarrirako jarraibideak.**

Guk, hiriok, irisgarritasuna hobetzeko eta hiriko ongizatea nahiz bizi estiloak mantentzeko ahaleginak egin behar ditugu, garraioa murriztuta. Badakigu, hiria jasangarria izateko, ezinbestekoa dela derrigorrezko mugikortasuna murriztea eta motorreko ibilgailuen alferreko erabilera sustatzeari uztea. Lehentasuna emango diegu ingurumenarekiko errespetua duten garraio bideei (batez ere, oinez, bizikletaz edo herriko garraioa erabiliz egindako joan etorriak sustatuz); gainera, baliabide horien konbinazioa gure planifikazio-ahaleginen erdian jarriko dugu. Hiriko motordun garraio bideen eginkizuna, azkenik, tokiko zerbitzuetara errazago iristeko eta hirien jarduera ekonomikoa mantentzeko aukera ematea izango da.

### **1.10 Klima aldaketa globalaren erantzukizuna.**

Guk, hiriok, ondo dakizkigu planetaren berokuntzak inguru naturalei nahiz hiri-inguruei eta hurrengo belaunaldiei dakartzkien arrisku handiak; horri aurre egiteko, negutegi efektua eragiten duten gasen atmosferarako emisioak ahalik eta azkarren murriztu behar dira. Era beran, garrantzitsua da biomasaren mundu osoko baliabideak babestea (adibidez, basoak eta fitoplaktona), horiek eginkizun oso garrantzitsua baitute planetaren karbono zikloan. Erregai fosilen emisioak murrizteko, ondo ezagutu beharko dira aukera guztiak eta hiri-inguruak sistema energetikotzat duen zeregina. Aukera jasangarri bakarrak energiaren iturri berriztagarriak dira.

### **1.11 Ekosistemen intoxikazioaren prebentzioa.**

Guk, hiriok, badakigu gero eta substantzia toxiko eta arriskutsu gehiago botatzen direla atmosferara, uretara, lurzorura eta janarietara; gainera, substantzia horiek guztiak gero eta arriskutsuagoak dira gizakien eta ekosistemen osasunerako. Ahalegin guztiak egingo ditugu kutsadura geldiarazteko eta horren aurkako prebentziorako.

### **1.12 Toki eremuko autokudeaketa, ezinbesteko baldintzatat.**

Guk, hiriok, seguru dakigu beharrezko indarra, jakituria eta sormenerako gaitasuna dugula, bizi-estilo jasangarriak garatzeko eta gure hiriak jasangarritasunerantz diseinatzeko nahiz eramateko. Toki elkarteen ordezkariak garenez gero (hautapen demokratikoaren bidez), prest gaude gure hiriak jasangarritasunerako antolatze lanari erantzukizun osoz heltzeko. Hiriek erronka horri aurre egiteko duten gaitasuna, izan ere, euren burua kudeatzeko esleitzen zaizkien eskubideen arabera da. Funtsezkoa da toki agintariak beharrezko ahalmena eta finantza laguntza sendoa edukitzea.

### **1.13 Hiritarren protagonismoa eta elkartearen partaidetza.**

Guk, hiriok, 21. Agendan agindutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dugu (Río de Janeiroko Lurraren Gailurrean onetsitako oinarritzko agiria): gure elkarteetako sektore guztiak batera lan egitea (hiritarrak, enpresak, interes taldeak) tokiko 21. Agenden garapenean. Ados gaude Europar Batasuneko ekintzako bosgarren programak ingurumenaren arloan egindako deialdiarekin ("Garapen jasangarritzat"); horrenbestez, prest gaude programa hori elkarteko sektore guztien artean aplikatzeko erantzukizuna onartzeko. Beraz, gure lanak inplikaturiko alderdi guztien arteko lankidetzan oinarrituko dira. Hiritar guztiak eta interesa duten taldeek informazioa lortuko dutela bermatu eta horiek erabaki-hartzeen tokiko prozesuetan parte hartuko dutela segurtatuko dugu. Halaber, hezkuntza eta heziketa aukerak bilatuko ditugu jasangarritasunaren arloan: ez

bakarrik pertsona guztietan, baita hautaturiko ordezkarietzat eta toki administrazioen langileentzat ere.

#### **1.14 Jasangarritasunerantz bideraturiko hiri-kudeaketarako tresnak eta erremintak.**

Guk, hiriok, eskuragarriak diren oinarrizko tresna politikoak eta teknikoak erabiltzeko konpromisoa hartu nahi dugu, hirien kudeaketaren planteamendu ekosistematikoa lortzeko. Ingurumenari buruzko datuak biltzeko eta aztertzeko, eta ingurumen mailako planifikaziorako dauden tresna ugariak aprobetxatuko ditugu, baita ekonomiaren nahiz komunikazioaren arazuko tresna guztiak ere, esate baterako, zuzentarauak, tasak zein eskubideak eta sentsibilizazioko mekanismoak, jendearen partehartzea ere kontuan hartuta. Ingurumen kontabilitateko sistema berriak sortzen saiatuko gara, gure baliabide artifiziala (“dirua”) bezain merkea den baliabide naturalen kudeaketa ahalbidetzeko.

Badakigu gure erabakiak eta kontrolak (hain zuzen ere, ingurumenaren zaintza, kontu-ikuskapenak, inguru gaineko eraginaren ebaluazioa eta kontabilitate, balantze nahiz informazio sistemak) zenbait adierazle motatan oinarritu behar ditugula; adierazle horien artean, aipagarriak dira hiriko ingurumenaren kalitatea, hiriko jarioak nahiz ereduak eta, batik bat, hiriko sistemen jasangarritasunaren adierazleak.

Guk, hiriok, ondo dakigu Europako hiri askotan ingurumenerako politika eta jarduera positiboak arrakasta handiz aplikatu direla. Horiek baliozko tresnak dira jasangarritasunaren aurkako presioaren erritmoa geldiarazteko eta moteltzeko, baina eurek bakarrik ezin dute gizarteak jasangarritasunaren aurka duen joera hori aldatu. Hala eta guztiz ere, oinarri ekologiko sendo horrekin, hiriek berebiziko posizioa dute, lehenengo pausoa emateko eta jarduera politika horiek gobernagarritasun prozesuan integratzeko; horrela, tokian tokiko hirien ekonomiak erabili ahal izango dituzte, jasangarritasun prozesu ulergarri baten bitartez. Prozesu honetan gure estrategiak sortu nahiz probatu eta gure esperientziak trukatu behar ditugu.

## **II. ZATIA**

### **Europako hiri jasangarrien kanpaina**

Guk, Gutun hau sinatu dugun Europako hiriok, elkarrekin egingo dugu lan garapen jasangarria lortzeko, tokian-tokian lorturiko esperientzian eta arrakastetan oinarrituriko ikaskuntza prozesu batean. Elkarri epe luzerako tokiko planak (21. Agenda) ezartzeko adorea emango diogu eta, horrela, tokiko agintarien arteko lankidetzaz indartuko dugu, prozesu hau Europar Batasunak hiriko ingurumenaren arloan dituen ekimenetan integratzeko.

Europako hiri jasangarrien kanpaina martxan jarriko dugu, hiriei jasangarritasunaren aldeko lanean adorea emateko eta hiriok laguntzeko. Kanpaina honen hasierako faseak bi urteko iraupena izango du eta Europan hiri jasangarriei buruz egingo den bigarren konferentzian ebaluatuko da, 1996an.

Tokiko agintari guztiei adorea emango diegu (bai hiriei eta bai herri txikiei, eskualdeei nahiz herriei), baita Europako toki agintarien sare guztiei ere, kanpainen parte har dezaten, Gutun hau hartuta eta sinatuta.

Europako toki agintarien sare handi guztiei kanpaina koordinatzeko eskatu nahi diegu. Koordinazio Batzorde bat sortuko da eta hori halako sareen ordezkariak osatuko dute. Beste alde batetik, ezin saretan ez dauden toki agintariei dagokienez, beharrezko neurriak hartuko dira.

Kanpaina honetako jarduera nagusiak honako hauek izango dira:

- Europako hirien arteko laguntza erraztea, jasangarritasunerantz bideraturiko politikak sortzeko, garatzeko eta aplikatzeko.
- Toki eremuko esperientzia positiboak buruzko informazioa biltzea eta eratztea.
- Tokiko gainerako agintarien artean jasangarritasun printzipioa sustatzea.
- Gutunaren sinatzaile berriak erakartzea.
- Urtero "hiri jasangarriaren saria" antolatzea.
- Europako Batzordeari gomendio politikoak egitea.
- Hiriko aditu taldeak hiri jasangarriei buruz emandako txostenetan laguntzea.
- Toki bakoitzean erabakiak hartzeko ardura duten pertsonen laguntza ematea, Europar Batasuneko legeriari eta gomendioei buruz.
- Kanpainaren informazio aldizkaria argitaratzea.

Jarduera horiek garatzeko, kanpainaren koordinazioa ezarri beharko da; beste erakunde batzuei kanpaina honi laguntza aktiboa emateko eskatu nahi diegu.

### III. ZATIA

#### **Tokiko 21. Agendek prozesuan duten inplikazioa: Toki ekintzako planak jasangarritasunaren alde**

Guk, Gutun hau sinatu dugun Europako hiriok, berori sinatu eta Europako hiri jasangarrien kanpaina parte hartzen dugun unetik, gure elkarteetan adostasuna lortzen saiatzeko konpromisoa hartu nahi dugu, 1996 baino lehen tokian tokiko irismena izango duen 21. Agenda bati buruz.

Horrela, 21. Agendako 28. kapituluaren ezarritakoari jarraituko diogu, Río de Janeiron 1992ko ekainean egindako Lurraren Gailurrean erabakitakoaren arabera. Tokian tokiko ekintza planen bidez, Europar Batasunak ingurumenaren arloan duen bosgarren programa aplikatzen lagunduko dugu ("Garapen jasangarriantza"). Tokian tokiko 21. Agendako prozesuak, bestalde, Gutun honetako lehenengo zatiaren arabera gauzatuko dira.

Tokian tokiko ekintza plana prestatzeko prozesuan honako etapa hauek sartzeko proposamena egin nahi dugu:

- Oraingo planifikazio eremuak eta finantza mekanismoak onartzea, baita beste plan eta programa batzuk ere.

- Arazoen eta horren zergatien aurkikuntza sistematikoa, kontsulta publiko ugariaren bitartez.
- Lanak lehentasun ordenaren arabera sailkatzea, aurkituriko arazoak konpontzeko.
- Elkarte jasangarriaren eredua sortzea, partehartze-prozesu baten bitartez, eta prozesu horretan elkarteko sektore guztiek hartuko dute parte.
- Aukera estrategikoak aztertzea eta ebaluatzea.
- Epe luzerako tokian tokiko ekintza plana ezartzea, jasangarritasuna lortzeko, eta horren barruan helburu neurgarriak sartuko dira.
- Planaren aplikazioa programatzea; horretarako, egutegia prestatu eta erantzukizunak partaide guztien artean banatuko dira.
- Erantzukizunak partaideen artean banatzea.
- Inplementazioa motorizatzeko eta horri buruzko informazioa emateko sistemak nahiz prozedurak ezartzea.

Gure toki agintarien barne-erabakiak tokiko 21. Agendaren prozesua garatzeko egokiak eta eraginkorrak ote diren aztertu behar dugu, jasangarritasunera bideraturiko epe luzerako toki ekintzako planak ere kontuan hartuta. Agian, ahalegin gehigarriak egin beharko dira, antolakuntzaren gaitasuna hobetzeko; horien barruan, honako hau sartu beharko da: erabaki politikoen berrikuspena, administrazio prozedurak, taldeko nahiz diziplinen arteko lanak, giza baliabide erabilgarriak eta agintarien arteko lankidetzak, elkarrekin eta sareak kontuan hartuta.

*Aalborgen sinatuta, Danimarkan, 1994ko maiatzaren 27an.*